

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

14-6-27 11.ALEA

Aldaketarako garaia

6. ORR. ►►

AHT-rekin
auzitan

2. ORR. ►►

Liburutegi bateratuaren
proiektua

4. ORR. ►►

Beharrekoa zen
aitortza

10. ORR. ►►

ALBISTEA

Udala auzitara eraman du AHT-ko enpresa taldeak

Hernialde-Zizurkil zatian dagoen hormigoi planta da gatazkaren iturria



Auziaren muina den hormigoi planta.

Zizurkilgo Udala epaitegi-tara eraman duen auzia 2013ko azaroan hasi zen. "ANEHOP, hormigoi enpresen federazioa Udalarekin harremanetan jarri zen esateko jakin zuela AHTko lanen aitzakian hormigoi planta bat egin behar zutela Zizurkil. Argi esan ziguten beste herri batzuetan ere gertatzen

ari zela", azaldu du Joxe Mari Luengo alkateak. Abokatuarekin hitz egin zuen alkateak eta hormigoi planta egiteko lanak hasi zituztenean, abenduaren 18an, lanak geldiarazteko agindua eman zuen Udalak.

Hernialde Zizurkil zatian lanean ari den enpresa taldeak, urtarilean Udalera idatzi bat

bidai zuen lanak gelditzeko dekretu horri helegitea jarriz. Teodoro Cacho Udaleko abokatuak azaldu digu. "Eurek argudiatzen dutena da AHTko proiektua interes orokorrekoa dela eta horren baitan hormigoi planta egiteko ez dela Udal lizentziarik behar. Udalaren argudioa ordea, argia da: AHTko

lanak interes orokorreko gisa katalogatuak izan arren, ezin da proiektuan ez datorren beste azpiegitura bat eraiki. Hormigoi planta baten ordez, errailak egiteko planta bat jarriko balute ere gauza bera", azaldu du Cachok. Horrela, otsailean, enpresa taldeak Udaletxean aurkeztu zuen helegitea atzera bota zuen Udalak.

Jaurlaritza, enpresen alde

AHT-ren Gipuzkoako zatia, Eusko Jaurlaritza ari da eraikitzen. Martxoan auziaren berri izan eta informazioa eskatu zion Udalari. Apirilaren 11an Jaurlaritzaren eskaera bat iritsi zen. "Jaurlaritzak eskaera egin zion Udalari prozedura bertan behera uzteko, atzera egiteko. Nik abokatu bezala inoiz ez dut ikusi horrelakorik, Jaurlaritza Udal bati eskatuz atzera egin dezala bere esku-

meneko kontu batean! Urteak daramatzat Udalekin lanean eta guztiz ohiz kanpoko da", nabarmendu du Cachok. Maiatza hasieran Udalak Jaurlaritzari erantzun zion lizentzia eskatu beharra dagoela horrelako lan baterako eta ez zuela atzera egingo. Eta maiatzaren 29an, hormigoi plantako lanak amaituta zeudenez, Udalak pausu bat gehiago eman zuen. "Hormigoi planta zigilatze, prezintatzeko agindua eman zuen, lizentzia eskatu gabe eraiki zelako eta jada lanean ari zirelako".

Udalaren azken mugimendua horren ostean ordea, azkenean, Hernialde Zizurkil zatiko AHT-ko enpresa taldeak lizentzia eskaera egin zuten. "Orain eskaera hori aztertzen ari gara, hilabete batzuetako azterketa izango da, eta bitartean zigilatze agindua bertan behera utzi dugu".

Epai bideetara

Prozedura administratiboarekin bat ordea, epai bideetara jo du AHTko enpresa taldeak Udalaren aurka. "Auzi administratiboan epaitegian salaketa aurkeztu dute Udalaren aurka. Guk epaitegira bidali dugu informazio guztia. Argi dugu Udalak bere eskubideen defentsa egin duela. Beste edozein enpresa edo herritarri eskatzen zaion bera eskatzen diegu" azaldu du Luengok.

Epaitegi-tara arrazoia duen uste osoarekin doa Zizurkilgo Udala. "Irabazteko guztiak ditugu. AHTko obretan ez ezik, mota honetako obra handietan horrelako auzi bat baino gehiago izan da eta guztietan Udalaren aldekoa izan da epaia, alegia, lizentzia eskatzea behartzen ditu enpresak. Azken bi epaiak 2013ko urrikoak dira, bat Andoingo Udalaren alde gainera, gai be-

ragatik", nabarmendu du abokatuak.

Jaurlaritzaren presioa

Udalak lizentzia ematea ebatziz gero, hor amaituko litzateke kontua. Orduan zergatik ez zuten hasieratik lizentzia eskatu? "Lanak gelditzeko lehen dekretua bidali genienean enpresak argi esan ziguten, eurak lizentzia eskatzeko prest zeudela baina Jaurlaritzak ez ziela uzten. Zizurkilgo kasuan lur industrialean egin dute hormigoi planta eta beraz, lizentzia emateko aukera badago. Baina Zizurkil lizentzia eskatuz gero, aurrekari bat da beste kasuetan, horren gehiago izan da eta guztietan Udalaren aldekoa izan da epaia, alegia, lizentzia eskatzea behartzen ditu enpresak. Azken bi epaiak 2013ko urrikoak dira, bat Andoingo Udalaren alde gainera, gai be-

Aurrez esandakoa baieztatze zera nabarmendu du

«Jaurlaritzak presio egin die enpresei lizentzia ez eskatzeko»

Udaleko abokatuak. "Lizentzia eskatzeko aurkeztu duten proiektua azaroan sinatuta dago. Hau da: Lizentzia eskatzeko proiektua prest zuten obrak hasi aurretik baina orain arte ez dute aurkeztu". Zizurkilgo alkateak dei egin dio Jaurlaritzari. "Eusko Jaurlaritzak berak lehenengoa izan behar luke eskumenak errespetatu eta egiten den guztia lege barnean egiten dela ziurtatzen. Askotan esan dugu AHTk Zizurkil erdiz erdi puskatuko duela eta ez dakarrela onurarik baina hori aldera batera utzita, gutxienez, legea bete beharko lukete".

El ayuntamiento, demandado por la U.T.E. del TAV

El motivo de litigio es la planta hormigonera instalada en el tramo Zizurkil-Hernialde

En noviembre del 2013 la asociación de empresas hormigoneras ANEHOP informó al ayuntamiento que en las obras del TAV en Zizurkil se iba a construir una planta hormigonera de modo irregular. "Efectivamente, así fue. Cuando empezaron las obras, en diciembre, el ayuntamiento dictó una orden de paralización", explica el al-

calde Joxe Mari Luengo. Sin embargo, en enero, la UTE de empresas que ejecuta el tramo Hernialde Zizurkil recurrió la orden. "Lo que argumentan es que el TAV es un proyecto de interés general y que la planta hormigonera se encuentra dentro del proyecto. El argumento del ayuntamiento es claro: Aunque las obras del TAV se deben con-

siderar como de interés general, a su amparo no se pueden desarrollar actividades auxiliares sin permiso municipal, bien sea una planta de hormigón, una fábrica de raíles, etc". Al no haber acuerdo, la UTE ha demandado al ayuntamiento en el juzgado contencioso administrativo. "Estamos tranquilos. La jurisprudencia es clara a favor de

los ayuntamientos en todos los juicios de este tipo", remarca Cacho.

El papel del Gobierno vasco

El gobierno vasco es quién está construyendo el tramo gipuzcoano del TAV. En marzo solicitó información sobre el litigio y en abril realizó un requerimiento al ayuntamiento de Zizurkil.

"El gobierno vasco pidió al ayuntamiento que levantará la orden de suspensión de obras. Yo en mi trayectoria como abogado, nunca había visto tal requerimiento de un gobierno autonómico a un ayuntamiento", ha remarcado Cacho. El ayuntamiento respondió al gobierno vasco que no iba a levantar dicha orden de suspensión y a fina-

les de mayo, se dictó la orden de precinto. "Al estar la planta de hormigón finalizada y en marcha, era el próximo paso".

Tras este último movimiento del ayuntamiento, al final, la UTE presentó la solicitud de licencia. El ayuntamiento está estudiando dicha solicitud y si se aprueba, se dará fin al litigio. Entonces, ¿Por qué no se presentó antes la

solicitud de la licencia? "En diciembre cuando les notificamos la paralización de las obras, las empresas ya nos remarcaban que ellos estaban dispuestos a pedir la licencia pero que era el gobierno vasco quien les presionaba para que no la pidieran, seguramente para no crear un precedente. Hay que tener en cuenta, que en Zizurkil la

planta de hormigón está en suelo industrial pero en otros municipios han construido plantas en suelos rurales, donde sería muy improbable conseguir una licencia municipal", responde Cacho. El alcalde realiza un llamamiento al gobierno vasco, "Debería de ser el primero en respetar las competencias y hacer cumplir la ley".

ERREPORTAIA

Liburutegia plazara

Plazako lokal berriak Aiztondo mailako liburutegi bilakatzeko lanean ari da Udala

Ilusio handiz, ikasturte osoa darama Udala taldeak proiektua lantzen: Bailarako udalekin hitz egin, finantziazioa lortze aldera proiektua Jaurilaritza eta Aldundiaren aurrean aurkeztu, eta bideragarritasun plana egin dituzte. "Isileko lanean aritu gara orain arte. Pauso garrantzitsuak eman ditugu, baina bidea geratzen zaigu proiektua erabat lotzeko. Ez zaigu gustatzen kea saltzea, baina herritarrek jakin minez daudenez, egiten ari garena plazaratzea erabaki dugu", azaldu du Leire Zubeldia zinegotziak. "Herri handiena izanik, batez ere Villabonako Udalarekin ari gara elkarlanean. Udalerrien babesa badugu, baina zerbitzuaren mantenuak urteroko aurrekontuetan izango lukeen eragina karga bat ez izatea da ezer baino lehen Udalek ziurtatu nahi dutena. *Tolosaldean Garatzen* ari da bideragarritasun plana egiten. Zentzu

horretan, zerbitzuaren bideragarritasuna ezinbesteko baldintza izango da proiektua gauzatzeko", zehaztu du.

Etorkizuneko liburutegiari begira

Proiektu honen zuzendaritzan Zizurkilgo kultura teknikari Ainhoa Larrea eta Zizurkilgo liburutegiko liburuzain Arantxa Zabala ari dira. "Eguno liburutegia txikia eta zaharkitua geratu zaigu. Maitasuna mugatu da zerbitzua, alde batetik areto nagusia aldamenean izanda zarata handia egoten delako lanean edo ikasten egon ahal izateko, eta bestetik, espazioak ez duela eraberritzea, dio Zabalak. Baina Zizurkilgo mugetatik haratago joanda, egungo liburutegiaren eredu bera da zahartuta geratu dena: "Katalogoaren %70 ez da mugitzen. Liburuak hilik daude apaletan. Eta liburutegia biziko bada, zerbitzua beste eremuetara zabaltzera

beharturik gaude", jarraitu du. Larreak berriz, gazteak eta krisia aipatu ditu proiektu honen iturburu gisa: "Gazteak liburutegira erakarri behar ditugu, beraiek baitira etorkizuneko helduak. Horretarako gazteek erabiltzen dituzten tresnez hornitu behar dugu zerbitzua eta dinamikoagoa izango den espazioa eraiki. Bestalde, krisiak liburutegietako aurrekontuak astindu ditu. Honen baliabideak bateratzera behartzen zaitu".

Bailara mailako liburutegi berritzailea

Hortaz, egungo erabiltzaileen beharrak aseko dituen liburutegi zerbitzu berritzailea da lantzen ari direna, eta horrekin batera, baliabide murrizteari ahalik eta zuku gehien ateratzeko modua eskainiko duena. "Ez du zentzurik bailarako herri bakoitzak bere liburutegirako liburu bera erostea. Askoz ere errentagarriagoa da

«Zerbitzuaren bideragarritasun ekonomikoa ezinbesteko baldintza izango da proiektua gauzatzeko. Tolosaldea Garatzen ari da bideragarritasun plana egiten»

denontzako liburu bat erosi eta aurreztutakoa liburutegiko beste alorren batera bideratzea", azaldu du Larreak.

Izan ere, proiektuak jasotzen duena ez da bailarako helduentzako liburutegi soil bat. Teknikarien arabera, "bailarako kultur espazio erreferentea izango da, oinarri liburutegia duena". Alegia, liburutegia eta honi lotutako



Leire Zubeldia, Arantxa Zabala eta Ainhoa Larrea liburutegia lekutu nahi den lokalen aurrean.

mailegu zerbitzua izango du, baina horretaz gain, hainbat txoko ezberdin izango ditu: ordenagailuen txokoa, hemeroteca, ikus-entzunezkoen proiektzio txokoa, ikas-

gela eta talde-lanak zein bilerak egiteko gelak, besteak beste. Eta noski, teknologia berriek ere presentzia handia izango dute ezinbestean: Adibidez, liburu digitalak.

Guzti horrekin batera, bailarako sortzaileen bilgunea izan behar duela ere argi dute teknikariek: Liburu aurreko teknika, sormen-lehiaketak, ipuin kontaketa edo eta kultur dinamizazioak leku garrantzitsua izango du "Dena den, proiektua ez dago itxita, parte hartzen duten udal guztien ekarpenekin osatuko da", gaineratu dute.

Zizurkilgo haur liburutegia ere bertan

Zizurkilen lekutuko litzaitekeen Aiztondo mailako liburutegia helduei bideratuta egongo da. Ikasleetatik hasi eta hirugarren adineko

«Bailarako kultur espazio erreferentea izango da, oinarri liburutegia duena»

herritarrek arte, adin-talde guztiek topatuko dute berri egokitutako eskaintza. Lokal berrietan joango litzaiteke baita ere Zizurkilgo haur liburutegia. "Hau ez da zerbitzu amankomunatuaren barruan sartuko, baina egokia iruditu zitzaigun haur liburutegia 600 metro karratu horietan egotea. Era honetan, heldu batekin gerturatzen den haurrak ere bere espazioa izango du eta bide batez, Atxulondo Kultur Etxean egun liburutegiak hartzen duen azalera osoa beste erabilera baterako libratuko genuke", azaldu dute. Gai nontzean, apustua, bailarako herri bakoitzak bere haur liburutegia mantentzea da, haurrek gertutasuna behar baitute. "Ildo horretatik, proiektu honen beste abantaila, herrietako liburutegien espezializazioa ahalbidetzen duela, bai espazioarena eta baita liburuzainena ere". Ea abantaila guzti hauek gozatzeko moduan izaten garen. Hilabete gutxiren buruan argituko da proiektu honen etorkizuna.

La biblioteca, a la plaza

El grupo municipal está trabajando con mucha ilusión el proyecto que prevé convertir los locales situado en los bajos del nuevo bloque de viviendas de la plaza Joxe Arregi en una biblioteca. Será una biblioteca mancomunada de Aiztondo, la cual estará preparada para saciar las necesi-

dades tanto de los lectores de hoy en día como de los jóvenes estudiantes. Y es que, "la biblioteca se nos ha quedado pequeña y obsoleta. El modelo de biblioteca, no puede limitarse al servicio de préstamo. La clave está en atraer a los jóvenes a la biblioteca, y para ello hay que dotar estos

espacios con las tecnologías de la información y comunicación y ofrecer un espacio dinámico", comentan Arantxa Zabala y Ainhoa Larrea, técnicos del Ayuntamiento. También hay que buscar vías para optimizar gastos. "Manteniendo el servicio de biblioteca del valle, en vez

de comprar todos los pueblos el mismo libro, bastará con comprar entre todos un ejemplar, y de este modo podremos utilizar ese dinero en otra cosa", explican. La nueva biblioteca tendrá el servicio de préstamo, una sala de estudio, aulas para reuniones y trabajos de grupo, el rincón

de los ordenadores, hemeroteca y una sala de proyecciones entre otras cosas.

Pero la concejala Leire Zubeldia, remarca que el proyecto no está del todo cerrado, ya que están negociando con los demás pueblos del valle el funcionamiento y el mantenimiento que requie-

rirá el nuevo servicio. "Para ello estamos realizando un plan de viabilidad con Tolosaldea Garatzen, y hasta cerciorarnos de que el servicio no supondrá una carga económica en el presupuesto anual de los ayuntamientos no se llevará a cabo", señala.

ERREPORTAIA

Aldaketak P.M. Otaño plazan

Udalak aurrera pausu bat emango du plazan oinezkoei lehentasuna emateko



Zimiterio eta zuhaitz inguruan eskerlekuak eta piboteak jarriko dira eta ezingo da bertan aparkatu.

Ohikoa da kotxez betetako Zizurkilgo P.M. Otaño plazaren irudia. Hori aldatu egingo da epe motzean. "Aspalditik zegoen arazo eta eskaera bat da. Arazoa, kotxe asko pilatzeak ekartzen duena autobusak edo bolumen handiko ibilgailu batek igaro behar badu esaterako. Eskaera berriz, herritar askoren aldetik etengabea izan da inguru horretan oinezkoei lehentasuna emateko kotxeen aurrean" azaldu du Joxe Mari Luengo alkateak.

Udal gobernua legealdi hasieratik zuen helburuetako bat beteko du: "Sarri

esan izan dugun moduan, gure programako helburu nagusienetakoa zera zen: Herriguneak indartzea, benetan herri gunetara atsegin bihurtzea. Zizurkil behean amaitzen ari gara eraldaketekin, hurrengo urtean ea estalpea jar dezakegun, eta Zizurkil Goiaren txanda zein orain".

Plazaren txukuntzea

Lan hauen baitan, plaza eta zuhaitzaren inguruan txukunduko da. "Legealdi hasieran aparkalekua egitea lortu genuen. Orain Aldundiaren diru laguntzarekin

txukundu dugu inguru hori, eta ikusi genuen diru laguntza hori balia genezakeela plazarako ere. Zimiterioaren eta zuhaitzaren bueltan lur berria botako da, eta eserleku batzuk jarriko dira, piboteez gain. Kotxeek ezin go dute bertan aparkatu", zehaztu du alkateak. Horrek ez du esan nahi plaza osoan ezingo denik aparkatu. "6 bat aparkaleku utziko ditugu plazan bertan txukunduta. Gainontzekoek aparkalekuan, Udaletxera bidean, udaletxe aurrean edo zalditegira bidean utzi ahalko dute kotxea".

«Eliza atzeko bidea bi norabideetako bihurtuko dugu, horrela, aparkalekutik eta Mendi bailaratik datozenek herritik irteteko ez dute plazatik pasa beharko»

Garrantzitsua den beste aldaketa eliza atzeko bidean gertatuko da. "Bi norabideetako bihurtuko dugu. Errepidea zabaltu dugu aparkalekuko eta espaloiko lanekin eta bi norabideetarako jarrita, aparkalekutik ateratzen direnek eta Mendi bailarako baserrietatik datozenek herritik irteteko ez dute plazatik pasa beharko".

Ahal dena

Plaza benetan peatonalizatzeko, plan orokorretan aurreikusia dago etxebizitzak batzuekin lotuta sailhesbide bat egitea. "Aspaldiko proiektua da. Gaur gaurkoz ordean, ez da proiektu bideragarria, karga handiko egitasmoa delako. Guk erabaki duguna da ezin dugula horren zain egon". Luengok badaki ekimena ez dela denek gustukoa izango.

"Nirengandik hasita, ohituta gaude beti ate aurrean aparkatzen. Badakit gustura ez daudenak ere izango direla baina Udal taldean benetan sinesten dugu plazaz disfrutatzeko aukera gehiago izango dugula hemendik aurrera". Lanak epe motzean martxan izatea espero du Udalak.



Etxebizitza berriak

20 urte badira Zizurkilgo herri gunean ez dela etxebizitzarik egin. Hori aldatuko da datozen hilabeteetan. "Promozio pribatua izango da. Udalak begi onez ikusi du eta orain aurkeztutako proiektuak aztertzen ari gara eraikiko den

etxebizitza inguruarekin bat etor dadin. 6 bat etxebizitza izango dira", zehaztu du alkateak. Urte amaiera aldera eraikitze lanak martxan izango direla uste du. "Une honetan Udalak ez du lur sailik ez baliabiderik etxebizitza promozio

publiko bat egiteko baina baimen ikusten dugu azken urteetako dinamika haustea lortu izana".

Gai horri lotuta, baserrien segregazioaren gaia lantzen ari direla aurreratu du Luengok. "Udalak sustatu duen eztabaida izan da hori. Alde guztieta-ko iritziak daude herrian baina gazte batzuk bederen Zizurkil- len geratzeko aukera bat dela ikusita, aurrera egitea erabaki dugu. Hori bai, araudi zorrotza eskatzen du horrek, Udalean lanketa sakona egin behar da eta gero Aldundiak onartu behar du. Ez da egun batetik bestera egiten eta denentzat ez du balioko, baina saiatuko gara aurrera eramaten".

Cambios en la plaza P.M. Otaño

El ayuntamiento está ultimando un proyecto para reducir el flujo de vehículos en la plaza P.M. Otaño y dar prioridad a los peatones. "Es una reivindicación muy antigua de muchos vecinos y vecinas", explica el alcalde Joxe Mari Luengo. "Como ya hemos mencionado anteriormente, uno de los objetivos principales de esta legislatura

era la de reforzar los núcleos urbanos, para que las plazas se convirtieran de verdad en lugares de encuentro y disfrute para los y las zizurkildarras. En Elbarrena estamos terminando la renovación y era el momento de Zizurkil Goia".

Acondicionamiento de la plaza

Dentro del proyecto, se

prevé el acondicionamiento de plaza. "Lo que se hará es arreglar el suelo en la zona del zimiterio y alrededores del árbol, colocando unos bancos y pivotes. Los coches no podrán aparcar en dichos lugares. En la plaza se acondicionarán 6 sitios para aparcar y el resto de vehículos tendrán que dejar el coche en el apar-

camiento, en el camino al ayuntamiento, frente a la misma o en el camino hacia la hípica". Por otro lado, la carretera que discurre detrás de la iglesia se habilitará para los dos sentidos. "Así, los que salgan del aparcamiento o vengan de los caseríos de Mendi bailara no tendrán que pasar a la plaza para salir del pueblo".

ALBISTEA

Ubareko aparkalekuen arazoa konpontzen

Udala Ubare auzoko bizilagunekin bildu da proposamena egin eta iritziak jasotzeko

Urte asko daramatzate Ubareko bizilagunek aparkalekuekin duten arazoa konpontzeko neurriak eskatzen. Hortaz, begi onez hartu dute bertako aparkalekuak herritarrentzat erreserbatzeko Udalak egin dien proposamena. "Ubaren 124 plaza daude eta 206 koxe. Etxepe guztietan garajeak daudela kontutan hartuta, nahikoa izan beharko litzateke. Baina auzoaren kokapena da arazoaren iturburua: Alde batean Villabona dauka, eta beste aldean tren geltokia. Batera edo bestera doazenek Ubaren uzten dute egun osorako autoa", azaldu du Leire Zubeldia Komunikazio zinegotziak.

Udalaren helburua bizilagunek etxe inguruan autoa uzteko aukera izatea da, bertakoen bizi kalitatea hobetzeko.

Egoiliar txartela

Proposamena sinplea da: "Eskaeren arabera aparkaleku



Udal ordezkariak auzora gerturatu dira bizilagunei proposamena egin eta iritziak jasotzeko.

kopuru bat bertako egoiliarrentzako erreserbatua egongo da, eguneko 24 orduetan. Eta erreserbatuak geratzen ez diren plazak ordutegi mugatua izango dute. Azken hauetan edo nork aparkatu ahal izango du, baina denbora muga batekin.

Aparkaleku erreserbatuetan berriz, egoiliar txartela dutenek soilik utzi ahal izango dute autoa", dio Zubeldiak. Egoiliar txartela autoaren zerga Zizurkilan ordaintzen dutenek eskatu ahal izango dute urteko kuota baten truke.

Izena emateko epea

Ekainaren 16tik 20ra arteko astean bildu ziren Udal ordezkariak Ubareko auzotarrekin atarika banatutako lau bilerekin. "oso pozik gaude erantzutan. "oso pozik gaude erantzutan. 100 herritar inguru hurbildu dira bileretara", nabarmendu du. "Hurrengo pausoa, egoiliarrentzako aparkalekuen eskaera zehatza jakitea izango da. Uztaila hasieran 15 eguneko epea irekiko dugu bizilagunek izena eman dezaten. Udaletxean edo udal bulegoetan egin ahal izango da". Egiten den eskaera kopuruaren arabera Udalak ordenantza prestatu eta udazkenean sistema berria martxan jartzea espero da.

Solucionando el problema de aparcamiento en Ubare

El Ayuntamiento se ha reunido con los vecinos y vecinas de Ubare con un objetivo: Acor- dar una solución para superar el problema de aparcamiento que padecen desde hace años. La proposición que ha hecho el Ayuntamiento es muy simple:

"Reservar las plazas de aparcamiento para los residentes durante las 24 horas del día, y dejar unas pocas plazas de horario limitado", comenta la concejala Leire Zubeldia. De este modo, todos los que paguen el impuesto de circulación en

Zizurkil podrán pedir la viñeta de residente a cambio de una cuota anual. A principios de julio se abrirá un plazo de inscripción para aquellos que estén interesados en pedir la viñeta. Se espera que para el otoño el sistema esté en marcha.

KRONIKA

Llado, Kataluniako anaia

Maiatzeko azken asteburuan, Kataluniako LLadó herriarekin senidetuzen Zizurkil

LLadó herri ezezaguna zen Zizurkilentzat iazko maiatzera arte. "Fanfarre bat bazutela eta, erraldoi eta guzti, prest agertu ziren iazko senidetze egunean parte hartzeko. Izan ere, iaz 20 urte bete ziren Aiztondo El Salvadorko Meanguera herriarekin senidetu zenetik eta Zizurkil horren inguruan antolatu genuen Maiatza Saltsan. Orduan hasi zen bi herrien arteko harremana" azaldu du Eva Usandizaga zinegotziak. Lehen harreman horren ostean, irailean Zizurkilgo 60 bat lagun LLadón izan ziren trikitixa, herri kirol eta bestelakoekin. Bertako


Udalak orduan oniritzia eman zion senidetzeari eta aurtengo maiatzean Zizurkilek egin du gauza bera.

Giro ezin hobea

Maiatzaren 30ean, iritsi ziren LLadó-ko 50 bat herritar Zizurkilera. Iluntzean, kantu jirako lagunekin ongi etorria eman zitzaion, txalaparta eta bertsoz lagunduta. Ondoren herritarrek prestatutako afari merienda dastatuz lagun giroan eta kantu artean igaro zen lehen gaua.

Hurrengo egunean sinatu zen Udalbatzan bi herrien arteko senidetze-hitzarmena. Aho

batez onartu zen Bildu eta EAJren babesarekin. Horrela berretsi zen duela urtebete hasitako harremana. "Bi naziotako anaiak gara. Bi hizkuntza gutxitu ditugu. Bi kultura ezberdin. Baina borondatea bat eta bakarra: Elkarrengandik ikastea, elkar hobeto ezagutzea" nabarmendu zen Udalbatzan irakurritako agirian. Udalbatzan bertan, LLadóko Udalak eskainitako oparia jaso zuten zizurkildarrek, Kataluniako herria erakusten duen margolan bat. Aurrekua eta euskarazko eta katalanezko kantuak izan ziren ondoren senidetzea ospatzeko, eta



jarraian jai giroan bistaratu zen Zizurkil zein herriarekin senidetu dagoen erakusten duen plaka: Kataluniako LLadó eta El Salvadorko Meanguerarekin. Bi herrietako ordezkariak izan ziren Joxe Mari Luengo alkatearekin batera plaka bistaratzeko. Ondoren guztiak Adunara joan ziren, Aiztondo bailara eta El Salvadorko Meangueraren arteko senidetzea ospatzeko. Gauean bi herrietako kideen arteko sagardotegiak eman zion amaiera asteburu ahaztezinari. Iaz hasitako harremana bi herrietan ofizialki sendotu ostean, senidetzea arlo gehiagotara zabaltzea aztertzen ari dira orain. Moltes Gracias Llado!

Lladó, un pueblo hermano

Zizurkil se hermanado con el pueblo catalán de Lladó, formalizando así las relaciones que comenzaron hace un año entre los dos municipios. Unas 50 personas vinieron a Zizurkil desde la localidad de Girona. Fueron recibidos con el grupo de Kantu Jira, txalaparta y bertsos. El día

siguiente, sábado, se firmó el acta de hermanamiento en el pleno por unanimidad, con los votos de Bildu y PNV. El ayuntamiento de Lladó obsequió a Zizurkil con un lienzo de su municipio. Un aurreku y canciones populares euskaldunes y catalanes precedieron a la firma.

Después se descubrió la placa que señala los municipios que están hermanados con Zizurkil: Lladó y el municipio salvadoreño de Meanguera. Para finalizar el día, más de un centenar de zizurkildarras y catalanes se reunieron en una sidrería. Moltes Gracias Llado!

KRONIKA

Gizalegezko aitortza

Maiatzaren 17an erabat bete zen Atxulondo kultur etxeko areto nagusia. Bertan elkartu ziren duela zenbait hamarkada Espainia hegoaldetik etorritako zizurkildar ugari eta baita euren historia ezagutu nahi zuten hainbat herritar ere. Aurtengo Maiatza Saltsan aniztasunaren eta jatorri ezberdinen inguruan ardaztuta egonik, horren baitako ekitaldia izan zen larunbatekoa. "Jatorri ezberdinak aipatzean, sarri oso urrutikoengan pentsatzen dugu. Udal gobernutik ordea, aspalditik genuen nahia Zizurkilera Espainia hegoaldetik etorritakoen historia kontatze-

ko. 40-50 urte daramatzazue gure artean, eta zuen historia jaso behar genuela iruditzen zitzaigun", azaldu zuen Alaitz Ormazabal kultura zinogotziak. Helburu horrekin, Udalaren eskariz, Ainhoa Gil eta Irene Larrañaga kazetari zizurkildarrek dokumentala egin dute, *Del pueblo Zizurkilera, etorkizun berri baten bila*.

Jon Maiaren hitzaldia

Begiak pantailan iltzatu eta egon ziren guztiak ordu laurden pasa irauten duen ikus entzunezkoa ikusten. Amaieran txalo zaparrada handia entzun zen. Horren ostean, Jon Maia bertsolari

ezagunaren bizipenak eza-gutzeko aukera izan zen. Jon Maia beraren familia jatorri espainiarrekoa izanik, euskal kulturara nola hurbildu zen azaldu zuen. Umore ukituak tartekatuz, hitzaldi sentikorra eskaini zuen Maiak. Egunari amaiera emateko, Atxulondo tabernan Extremadura inguruko jaki tipikoak dastatzeko aukera izan zen, eta plazan, bertako dantza eta kantuak

eskaini zituzten Donostiako extremeñoen elkarteko kideek. Hitzaldiaren amaieran gogoeta hau utzi zuen Maiak: "Horrelako ekimenak txalogarriak dira eta herri gehiagotara zabaldu behar lirarteke. Elkar ezagutzea baita elkarbizitzarako bidea". Dokumentala Aurrerako Udal bulegoetan eskura daiteke edo internetez ikusgai www.zizurkil.eu web orrian.

Un homenaje necesario

Este año, Maiatza Saltsan se ha centrado en la diversidad y en los diferentes orígenes de los y las zizurkildarras. En ese contexto, el 17 de mayo se realizó el homenaje a las personas llegadas a Zizurkil en los 60 y 70. "Cuando hablamos de diferentes orígenes, normalmente pensamos en personas que han venido de otros continentes. Sin

embargo, desde el gobierno municipal, queríamos contar la historia de las personas que vinieron a Zizurkil desde el sur de España. Ustedes llevan décadas entre nosotros, y creíamos que teníamos el deber de recopilar sus vivencias" explicó la concejala de cultura Alaitz Ormazabal en el acto celebrado en la casa de cultura Atxulondo. A petición

del Ayuntamiento, las periodistas zizurkildarras Irene Larrañaga y Ainhoa Gil han realizado el documental titulado, *Del pueblo Zizurkilera, etorkizun berriaren bila*. En el acto, que reunió a 150 vecinos y vecinas, además de estrenar el documental, el bertsolari Jon Maia impartió una charla. Para finalizar el día se pudo disfrutar de canciones y

bailes típicos extremeños y de la comida preparada por los y las zizurkildarras provenientes de dicha comunidad.

Se puede obtener el documental en las oficinas de Aurrera o verlo en internet en la página www.zizurkil.eu. El Ayuntamiento quiere agradecer a todos y a todas las que han participado en el documental.

Maiatza saltsan, anitza

2014ko Maiatza Saltsan inoizko parte hartzaileena izan da. Udalak eskerrak eman nahi dizkie ekitaldiak posible egin dituzten guztiei: Parte hartuz, kantuan eta dantzan, euren herrietako janariak prestatuz... Hemen bildu ditugu beste zenbait argazki.



Txikiak "Tomasen abenturak" ikuskizunaz gozatu zuten.



San Isidro egunean ohiko herri kirol saioa izan zen frontoian.



Zizurkilen amaitu zen Gipuzkoako I. Emakumeen Bira. Leire Olaberria izan zen garaile.



Herriko sabel dantza ikastaroko ikasleek festa afrikarrean parte hartu zuten.



Nigeriar dantza eta kantuak plazara atera zituzten Zizurkilen bizi diren nigeriarrek.

HERRITARREN TXOKOA

JOKIN ALBEDI



“Ziklo krosa zure buruaren aurkako borroka da”

16 urte betetzear, txapelketa mordoa bizikleta gainean

Noiz ekin zenion txirrindu probetan parte hartzeari?

Oso umetatik ibili izan naiz bizikletan. 7-8 urterekin jada lehiatzen hasi nintzen Andoaingo txirrindulari eskolan. Benjamin, alebin eta infantiletan errepideko probetan ibili nintzen, eta kadetetan, aukera eman zidaten denboraldi aurea ziklo kro-sean egiteko. Errepiderako pistana bueltaka prestatzen aritzea baino dibertigarriago iruditzen zitzaidan eta horregatik hasi nintzen.

Bi urte daramatzazu ziklo kro-sean eta aurten txapelketa guztiak irabazi dituzu...

Ez nuen inondik inora espero. Lehen urtean lasai hasi nintzen lehen lasterketetan eta arduradunek esan zidaten: Zu hor ondo ibiliko zinateke! Horrela, iaz, 7 lasterketa irabazi nituen. Orduan talde batek deitu zidan, Bio Race Caravanas Erandio taldeak, eta beraiekin egin dut aurtengoa.

Horrelako talde bat edukitzeak zer esan nahi du?

Andoaingo txirrindulari

taldeak ziklo kros probetan izena ematen zidan baina bestea nik egin behar nuen. Orain talde honekin bizikletak ematen dizkidate, arropa, konponketak...Hori ziklo kro-sean, errepidean Andoaingo taldearekin jarraitzen dut eta oso pozik.

Ederki baliatu duzu ziklo kro-seko aukera, ia dena irabazi duzu, besteak beste, estatuko txapelketa...

Euskadiko txapelketak aurrez irabaziak nituen baina estatukoa izan da orain arteko lorpen handiena. Valentzian, Castellonen jokatu zen proba urtarrilean, pista oso lehorra zegoen, hondar bide bat eta 25 eskailera genituen igotzeko bizikleta bizkarrean. Lehen itzulia lasai egin genuen, bigarrenetan hondarretan nire aurrekoa erori zen, eta ni atzetik! Hirugarrenen zijoanaka aurrea hartu zigun orduan, baina eskaileretan gora harrrapatu ahal izan nuen eta jaisten pasa. Behetik

gorakoan aldea atera eta irabazi ahal izan nuen.

Orain errepidean ari zara...

Proba garrantzitsuenak orain ditugu: Uztailak 4,5 eta 6an Espainiako txapelketetan parte hartuko dut Euskadiko selekzioarekin. Bost goaz Euskaditik. Ea nola ateratzen den.

Zer alde dago ziklo krosaren eta errepideko lasterketen artean?

Ziklo krosa zure buruaren aurkako borroka da, errepidean gehiago da talde lana, faktore gehiago sartzen dira jokoan.

Zein da horrela ibiltzeko sekretua?

Entrenatzea da sekretu bakarra, ahal bada eguneroko. Errepiderako Zaldibi-Ordizi aldean ibiltzen naiz. Ziklo kro-sean zehazki prestatzeko Zizurkil Goian ibiltzen naiz batzuetan baina gehienbat Astesun. Berta lagun bat dut ziklo kro-sean ibiltzen dena eta berak zirkuitu bat egingo du etxean.

Etorkizunean aukeratu beharko bazenu...

Ez dakit zer esan. Datorren denboraldian jubeniletan hasiko naiz eta jubenilen bigarren mailatik aurrera hasten direla pentsatzen etorkizunaz, beraz momentuz bietan jarraituko dut eta gero gerokoak.

Lagunek zer esaten di-zute?

Gehienek ezer ez. Batzuk badituz bizikletan ibiltzen direnak eta esaten didate, “hi bezala ibiliko baninuake!” Esaten diet entrenatzea dela sekretu bakarra.

Esaiguzu...

Herriko pertsonaia bat

Ez nuke jakingo bat aukeratzeko.

Txoko bat.

Nire etxeko garajea. Bertan orduak pasatzen ditut bizikleta prestatzen.

Zer dago faltan edo soberan?

Ni gustura bizi naiz he-men, kexarik gabe.

B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.